

# GIZONEZKOEN BERTSO ESKOLA FEMINISTA 2019-2020 ikasturtea

Izena emateko epea: 2019ko irailaren 9tik 20ra

Gizonezko bertsolarientzako lanketa feminista egiteko bertso eskola izango da, nabari baita gizonezkoetan badela gogoia, jarrera, interesa eta jakin-mina begirada irekitzeko. Oinarri teorikoa eskainiko zaie taldekideei, eta talde dinamikak nahiz adituen edota arituen ekarpenak izango dira saioz saio. Gogoetarako eta esperientziak partekatzeko espazioa eskaini nahi da, taldekideekiko konfiantza eta zaintza bermatuz. Bertsoan egiteko espazio bat ere izan nahi du Gizonezkoen Bertso Eskola Feministak.

Bat-batean maila ezberdina duten bertsolariek eman dezakete izena.

## Ezaugarriak

- Maiztasuna: hilean behin larunbat goizez (10:00etatik 14:00etara). Ikasturtea 2019ko urrian hasi eta 2020ko ekainean bukatuko da.
- Lekua: Amasa-Villabonako Subijana etxean, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen egoitzan (Kale Nagusia, 70. 20150 Amasa-Villabona).
- Partaide kopurua: gutxienez 8.

## Oinarriak

- Konpromisoa:** Ikasturte osoan zehar eskoletara etortzea eta dinamikan parte hartzea eskatuko zaie bertso eskolan izena eman duten partaideei.
- Esperimentazioa** da bertso eskola honen oinarria. Metodologia ere egokitzen joango gara taldearen bilakaeraren arabera.
- Aniztasuna:** Ikuspegien arteko aniztasuna eta errespetua oinarri izango da, epairik gabeko begirada landuz. Zaintza erdigunean jarriko da.

GIZONEZKOEN BERTSO ESKOLA FEMINISTA 2019-2020	
<u>2019</u> Urriak 12 Azaroak 9 Abenduak 21	<b>Gai jartzaile lanetan:</b> Arkaitz Goikoetxea, Iker Iriarte
<u>2020</u> Urtarrilak 11 Otsailak 8 Martxoak 7 Apirilak 4 Maiatzak 9 Ekainak 13	<b>Antolatzaile lanetan:</b> Jon Agirresarobe

**Izen-ematea:**

- Bertsozale Elkarteko [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian, formularioa betez. Bertan, datu hauek eskatuko zaizkizu:
  - o Zure izen-abizenak, telefonoa eta e-maila.
  - o Matrikula kobratzeko zure kontu korrontearen 20 zenbakiak.
  - o Oharrak uzteko aukera duzu bertan.
- Izena emateko epea:
  - o 2019ko irailaren 9an hasiko da, 8:00etan, eta irailaren 20an itxiko da.
  - o Taldea osatzeko izen-emate ordena hartuko da kontutan.
- Taldearen osaketaren berri irailaren 27an emango da eta matrikula kobratuko da.
- Izena emateak bertso-eskolaren oinarriak onartzen direla adierazten du.

**Matrikula:**

- Zenbatekoa: 150 €
- Matrikula kobratutakoan ez da dirurik itzuliko.
- Matrikulatik kanpo gelditzen dira ikasturtean zehar sor daitezkeen bestelako ekintza gehigarriak.